

# **Carlos V** ta mandazain baten arteko alkarizketa

**Insaustik, Carlos V Agintari ta napartar mandazain baten arteko ustezko elkarrizketaren barri emoten deuzku.**

Carlos V Agintariari, euskeraz egitea atsegin jakon,urrean, aitorle,kapelau ta osagilletzat eukazanak ,euskaldunak ziralako. Ukusmiragatik edo ikasi be, ikasi ebazan euskerazko berba batzuk. Alango baten, diñoenez, bidean doala topo egiten dau Naparroko mandazain bategaz. Eta euskeraz itaunduten dautso: -Mandazaia, nundik zatoz? -Nafarroatik nator,erantzuten dau. Geiago be galdetuten dautso Agintariak: Nafarroan gari asko al dago?.- Bai, Jauna, asko, dirautso mandazaiak.

Agintariak, amaitu ei eban esanaz: -Nafarroan, gari asko. Batere,baterez, neretzako.

Ausnarketa illunxea gero, Agitariarena !